

Tanta zozketa-txartelaren banaketa

2023 urtean Orereta Ikastolari dagokio Kilometroak jaiaren antolaketa. Egiten diren ekintzetako bat **Tanta zozketa** da.

Familia bakoitzeko ikasle zaharrenari, **Tanta txartel** bat banatuko zaio. Txartela erosten duenak 60.000 €-ko zozketan parte hartuko du. Txartel bakoitzak 5 € balio du.



Norbaitek txartel gehiago nahiko balitu, mesedez, **martxoaren 10a baino lehen** usurbil@ikastola.eus helbidera mezua idatzi. Kobrantza errezibo bidez egingo da martxoaren 16an.

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Martxoaren 7an izango da hurrengo Artezkaritza-Kontseiluaren bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinaraz dezakezue.



Jangela-batzordea

Jangela-Batzordea martxan da eta bertan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

Batzordearen zeregina zerbitzuaren funtzionamenduaren, antolaketaren eta menuen jarraipena egitea da.

Hurrengo bilera, **martxoaren 7an** egingo da.

Bertan parte hartu nahi baduzu, **eman izena idazkaritzan**.



Martxoak 8

Martxoaren 8ko ospakizunak direla eta, egun horretan zerbait morea jantzita ekartzera gonbidatu nahi ditugu ikasleak.

M8

Udako aisialdi eskaintza

Aurten ere Zirimolak prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Bertan, berrikuntza ugari ikusiko dituzue, tartean egitasmo bat gehitu dela eskaintzari. Modu horretan Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera izan dezaten. [Informazio gehiago...](#)



Ikasleekin egindako pantailen erabilera egokiaren inguruko lanketaren deskargua.

[Noauako podcast honetan](#) Miren Rosek datorren asteetan eskainiko duen formakuntzaren helburua eta metodologia duzue entzungai.

Hitz Aho guraso eskolak, Udarregi ikastolarekin eta Usurbilgo udalarekin batera, Miren Ros gonbidatu du, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzera.



Ikasturte honetan, LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek formakuntza jaso ostean Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko die gurasoei eta talde eragilearen berri jasoko da. Azkenik, maiatzean, interesatu orok kezka plazaratzeko eta lantzeko aukera izango du.

Datak:

- **LH5eko** ikasleen formakuntza: **martxoak 27**
- **LH6ko** ikasleen formakuntza: **martxoak 28**
- **DBH1ko** ikasleen formakuntza: **martxoak 6**
- **Gurasoekin: Apirilak 25, 17:30ean, Udarregi Ikastolako jangelan.**
- **Bilera irekia:** Gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, teknikariak, interesatu oro, **maiatzaren 2an, 17:00etan, Potxoenean.** Gonbidatua Zarauzko guraso talde bat da: *Gure aukera, guk 16.*

Mugi gaitezen, batu gaitezen!

Ibilaldi neurtua

Urtero bezala, martxoaren 12an ibilaldi neurtua antolatu da. Aurten Donostian izango da. Joateko interesa duzuenok bidali haurraren izen-abizenak eta maila eskolakirola@udarregi.eus helbidera martxoaren 7a baino lehen. Martxoaren 7an 16:45ean, ikastolako jangelan, bilera bat egingo da egun horretako informazioa emateko.



**Gipuzkoako
Mendizale
Federazioa**

[Hona hemen ibilaldi neurtuko informazioa eta ibilbidea.](#)

Eskola Kirola: LH 5-6 multikirola aztergai

Denbora bat bada hainbat tokitatik kezka bat jaso izan duguna Usurbilen dugun multikirol ibilbidearen inguruan. Landu berri dugun Plan Estrategikoan ere, gai hori landu beharra jasota geratu zen beste neurri batzuekin batera. Horregatik, hausnarketa ireki nahi dugu ereduaren birformulazioa bideratzeko.

Komunitate guztiaren parte-hartzea garrantzitsua izango da: hezitzaileak, kirol elkarteak, gurasoak zein ikasleak. Horretarako hainbat hitzordu eta parte hartzeko modu aurreikusi ditugu eta horretara animatzen zaituztegu.

Martxoak 15 -- Proposamen konkretuen lanketa lan-saioa

OHARRAK: Saioa, **Potxoenean** izango da arratsaldeko **18:30ean**.

Bestalde, LH 5-6ko ikasleen ikuspuntua galdetegi baten bitartez jasotzea aurreikusten da.



Usurbilgo Udala

Usurbilgo bazterrak ezagutzen

Gure bazterrak ezagutzen ekimenaren 2. irteera: BASERRIEN BIDEA (Belmonte auzo-elkartearen eskutik).

Irteera-gunea: Udarregiko goiko frontoian, 2023ko Martxoaren 19an, 9.30ean.

IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA, ARANEKO BELMONTE AUZO-ELKARTEAREN LOKALEAN 12.30ean egingo den hamaiketako antolatzeke.

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA "Usurbilkultura.eus"en : 2023ko martxoaren 16a

ERAMAN BEHARREKOAK: mendiko oinetakoak, ura, arkatza edo boligrafoa eta iparrorratza (ahal izanez gero).



HAUR HEZKUNTZA

Baso-eskolako jantzien kobrantza

Martxoko erreziboarekin batera, **HH 3ko, 4ko eta 5eko familiei, baso-eskolako jantziengatik 5€** kobratuko zaizkizuela jakinarazten dizuegu.



LEHEN HEZKUNTZA

Irteera

5. mailako ikasle eta irakasleak **Pagoetara** joango gara egun pasa datorren ostiralean, martxoak 10. Arratsaldeko 16:30ean itzuliko gara.

4. mailakoak ere irteera egingo dugu martxoak 10ean **Eguzki Bordara**.



Baso-eskolako jantzien kobrantza

Martxoko erreziboarekin batera, **LH 1., 2. eta 3. Mailako ikasleen familiei, baso eskolako jantziengatik 5 €** kobratuko zaizkizuela jakinarazten dizuegu.



LH 3 Irteeren kobrantza

LH3. mailako ikasleek Ikasturte amaieran IrrisarriLand-era egin behar dugun bi eguneko irteeraren lehenengo zatia kobrantza abenduaren 23an egingo zela jakinarazi zen, baina ez zenez gauzatu, **GAUR** kobratuko dela jakinarazten da. Aurrerakina **25 euro** izango dira.



LH 2 Irteeren kobrantza

LH2. mailako ikasleek Kutxa espaziora egin zuten irteeraren zenbatekoa, 12,10 euro, **GAUR** kobratuko dela jakinarazten da. (Autobusa: 4,60 € + Planetariuma + museorako sarrera: 7,50 euro)



Zorriak LH1

LH 1eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



DBH

Irteeren kobrantza

DBH 1. mailako ikasleek Planetariumera egin genuen irteeraren kobrantza abenduaren 23an egingo zela jakinarazi zen, baina ez zenez gauzatu, **GAUR** kobratuko dela jakinarazten da. Autobusaren kostua **11 euro** izango dira.

GAUR DBH3. mailako frantseseko ikasleek **Bretainara** egingo dugun irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten da. Kostua **50 €** izango da.



Orientazio-bilerak

Urtero bezala, ikasturte honetan ere, **DBH 4ko ORIENTAZIO BILERAK** egingo ditugu. Zuei ere, antolaketa lanetan laguntzeko asmoz, aurrez bileren inguruko egutegia helarazten dizuegu.

DBH bukatu ondoren egin daitezkeen **ikasketa eta lanbide irtenbideei** buruzko bileren egutegia.



DATA	ORDUA	GAIA
Martxoak 6 (astelehena)	❖ 17:00etan (euskaraz)	➤ DBH bukatu eta ondoren egin daitezkeen ikasketa edo bestelako aukera desberdinei buruzko informazio orokorra.
Martxoak 7 (asteartea)	❖ 17:00etan (euskaraz eta gazteleraz)	➤ ZUBIETAKo Lanbide Heziketa Zikloak
Martxoak 8 (asteazkena)	❖ 17:00etan (euskaraz eta gazteleraz) ❖ 18:00etan (euskaraz eta gazteleraz)	➤ OTEITZA (Zarautz) (Batxilergoak eta Lanbide Heziketako zikloak) ➤ LASARTEKO Institutua (Batxilergoak)
Martxoak 9 (osteguna)	❖ 17:00etan (euskaraz eta gazteleraz)	➤ STO TOMAS LIZEOA (Donostia) (Batxilergoak)

Bilera guztiak DBHko eraikinean egingo dira.